

Faktore horiek guztiak koktel-ontzian sartu, ondo eragin eta gaurko euskal prentsaren egoera daukazu: itxura nahikoa oneko tuberkulosi-gaixoa. Gaixoa sendatzeko errezeta mirakulosoak niri ez eskatu. Argitaratzaileok lan handia dugu produktua hobetzen, kostuak beheratzen eta baliabide berriak bilatzen, baina administrazioak, oro har, euskal komunikabideak sendo laguntzen ez baditu eta irakurleak ugaritzen ez badira, 1980ko hamarkadaren hasierako krisia ahuntzaren gauerdiko eztula izan daiteke. Elhuyarren ikuspegitik bederen, bideragarritasun ekonomikoaren ikuspegi soiletik aztertuko bagenu, *Elhuyar. Zientzia eta Teknika* argitaratzeari aspaldi utzi genion. Aldizkaria Elhuyar Kultur Elkartearen bandera-untzia delako ari gara; noiz arte eutsi ahal izango diogu?

Kronikatxo hau berrirakurtzean nahikoa goibel atera zaidala konturatu naiz, nahiz eta gai beltz batzuk bazter utzi ditudan, Iparraldeko inkesta soziolinguistikoaren emaitzak adibidez, eta ez zen hori nire asmoa. Eskerrak, 1997ak pozteko arrazoirik emango digun! Izan ere, azken urteotako euskalgintzaren bi erakunde eraginkorrek, Elhuyar Kultur Elkartek eta Udako Euskal Unibertsitateak, hogeita bost urte beteko baitituzte. Zorionak.

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

EUSKAL ITZULPENGINTZA 1996

Urte batetik bestera nekez gerta liteke aldaketa sakonegirik itzulpengintzari eta bere merkatuari dagokienean, eta ezer baino lehen, joan den urteko ikuspegiaren berri ematean ageritzirako ildo nagusiak zehaztu eta sakondu egin direla esan behar nuke. Deustuko masterrak, dozenerdi bat urtez jarraian ateak ireki ondoren, aurten lehen aldiz ikasle gutxiegi dituelako datorren urtera arte ateak ixtea erabaki du. Beraz, EHUak Gasteizko campusean eskainiko duen masterra izango da unibertsitate-mailan itzultzen ikasteko aukera bakarra eta hemen ere bi urteko ikasketak bakarrera laburbildurik jasoko dira.

Iruzkin labur bat egiten hasiz gero, iaz genioen gauza bera esan behar dugu aurten ere, euskal itzulpengintzaren muga kuantitatiboen aurrean edo gaudela. Baina hori esan ondoren, aldakuntza kualitatiboen zantzuak ere nabari direla aitortu beharrean gaude.

Bata UEUn lehen aldiz Alderantzizko itzulpenak, hots, euskaratik erdararakoak hartu duen leku bereziak adierazten du; izan ere, uztailearen 15etik 19ra bitartean lehen aldiz astebete eskaini baitzaio egunean egunean indarra hartzen ari den alor horri; arazo orokorrak, euskaratik gaztelania, ingelesa eta esperantoa bezalako hizkuntzetara itzultzeak sortzen dituen arazoak eta zenbait autore jakinen (Juan Garzia, Felipe Juaristi, Edorta Jimenez, Itxaro Borda, Andu Lertxundi) obrak erdaratzearen gorabeherak azaldu eta eztabaidatu ziren. Zalantzarik ez dago, aipatu dugun itzulpen-mota horrekiko interesa seinale ona da euskara eta euskal itzulpenarentzat, hartzaille soil izate-tik emaila izatera pixkanaka iragaite hau ezinbestekoa baitu-gu geure hizkuntz eta kultur osasunerako.

Bestalde, UEUn bertan eta bigarren astean uda honetako jardunaldietan izarra izan den gaia landu zen: itzulpen juridikoa-administratiboa. Larraonan egin ziren jardunaldien helburua itzulpengintzak justizi alorrean (epaitegi eta abarretan) duen erabilerari buruzko hausnarketa teoriko-praktikoa egitea izan zen. Horrela, alde batetik, itzulpen juridikoaren printzipio eta ezaugarri nagusiak azaldu ziren eta bestetik, horrelako itzulpenak egitean aurkitzen diren eragozpen nagusiak aztertu ziren. Gogoeta, eztabaida eta etorkizunerako proposamenak egiten epaile, abokatu, itzultzaile, terminologo eta abar ari izan ziren; guztira hamabosten bat profesional.

EHU/UPV-k, berriz, «Itzulpena administrazioan eta justizian» uda-ikastaroa antolatu du uztailearen 18, 19 eta 20an Lurdes Auzmendiren zuzendaritzapean, Euskal Herriko eta atzerriko itzultzaile eta adituek gogoeta interesgarriak egin dituzte administrazioan eta justizian lanean diharduten itzultzaile/interpretarien prestakuntza, estatusa, itzulpenen balio legala, arazo terminologiko eta abarri buruz. Hizlari eta eskuhartzaileei dagokienez, arrakasta nabariarekin burutu zen

ikastaroak Luxemburg, Katalunia eta Euskal Herriko adituen argitan arazoak hausnartzeko aukera eman zuen.

Azkenik, eta sail beretik irten gabe, esan dezagun azken bolada honetan zenbait abokatu eta interpretarien artean izan diren gatazka eta gorabeherak ere izan dutela oihartzuna ikastaroetan ez ezik, egunkarietako orrialdeetan ere. Honela idazten zuen Joan Aurre Garaik (*Euskaldunon Egunkaria*, 1996-9-1): «Aspaldion badabil auzizaleren bat edo beste —hitzaren esanahirik okerreanean ulertuta—, hiperreuskaltzalearen maskara jantzita —desgisa hutsa baita—, itzultzailearen aurka bazterrak nahasten. Auziperatuak aukeratu ez duen figura arrotza ei da itzultzailea, eta, dirudienez, abokatuaren asmo aitorrezinak aldrebestu egiten ditu, epaile erdaldunari falta duen tresna ematen diolako: gainera, itzultzaileak ez ei du esandako guztia, ehuneko ehuna jasotzen. Azken batean itzulpenak ez duela balio». Aurreraxeago dio: «Zergatik begitan hartu itzultzailea? Auzitegiko jauntxo erdaldunen aurka ausartu ez eta? Auziperatuen onerako ote? Euskararen alde ala sistemen aurka euskara bandera hartuta? Jokabide horrek ez dio euskarari mesederik egiten, eta zalantzak ditut auzitegietako euskararen egoera negargarria hobetuko ote duen; baina dagoeneko langile batek lanpostu finkoa utzi egin du eta beste bat bajan dago, baja luzean oraindik, lan-egoera deserosoan estutasunari epaile batzuen euskaltzalesunetik ezak eta abokatu auzizaleren baten gaizkinahiak erantsitako artegatasun jasanezinak bultzatuta». Egoera zail baten tirandurak agerian jartzen dituen hitz gogorrak. Bistan dago auzitegietako euskararen arazoak eta funtzioek nekez izango dutela konponbiderik ikuspegi besarkatzaile eta konplexuago batetik, era egokian planteatu ezik, eta horretarako ezinbestekoak izango dira euskalgintzan ari garen guztion koordinazio eta artikulazioa harako «etxe banatua» izan ez gaitezen. Taktikak eta estrategiak hobeto planteatu ezik, jai daukagu etorkizunean.

Gainerakoan EIZIE, Euskal Itzultzaile Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak bere ohiko bidetik lanean dihardu Literatura Unibertsala bildumarako itzultzaileei deiak eginez, EIZIEko fondo bibliografikoa katalogatzeko eta informatizatzeke proiektu-

tua abian jarriz eta urtearen bukaera bitartea, ingelesetik literatura itzultzen dutenentzat mintegia antolatuz, besteak beste.

Bukatzeko esan genezake, urtero bezala, Donostiako Zinemaldian euskararen presentzia hutsaren hurrengoa izan dela eta hor bai egon badagoela itzultzaileentzako merkatua, baina *hortus conclusus* izaten jarraituko duena arduradunek borondate gehiago agertzen ez duten bitartean. Ea datorren urtean aurreranzko urrats bat bederen ematen dugun.

XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

ZAZPI ATEDUN TEBAS HURA NORK ERAIKI ZUEN?

Urtealdi honetan euskal literaturaren mundutxoan izandako lauzpabost gertakari hautatu eta horien gaineko nire aipamena egiteko agindu zait. Gogoratzen hasi eta izen bat datorkit berehala burura: Joseba Jaka. Haren izanaz ere idatz nezake beste behin, baina nahiago dut lan hori beste batzuentzat utzi, gogoeta txiki bat egiteko hemen, literaturgintzako prozesuari buruz.

Literaturan zer da funtsezkoena? Hitz batean esanda: testua. Eta testu horren alde bietan, sortzailea eta hartzailea. Hori da benetan axola duena, eta gainerako guztia bigarren mailakoa da, zalantzarik gabe. Bigarren mailakoa eta askotan farfala, bai, baina behar-beharrezkoa beste batzuetan. Bertold B recht-en poema bat ibili zait egunotan buruan, Mikel Laboak kantatu bihurtu zuena, «Langile baten galderak liburu baten aurrean» izenarekin. Ez dakit gogoratzen duzuen: historiako ageriko eta isileko protagonistez ari da, liburuetan ageri diren errege eta antzekoek izango zutela ondoan sukaldari bat, zaldia garbitzen zien norbait eta abar.

Nik ez dakit Joseba Jakak ezer idazten ote zuen baina literaturako gauzarik ezetz esango nuke behintzat; hortaz, segurasiki ez da agertuko hurrengo mendeko literaturaren historietan, ez da bere izena gogoratuko. Eta hala ere, azken hoge